

EZ OHIKO UDALBATZARRA

Errezilgo Udaletxeko Pleno Aretoan, 2010eko uztailaren zortziko gaueko bederatziak eta hamabost minutu direnean, bildu dira, ez ohiko Udalbatzarra egiteko ondoko Korporatiboak:

Iñaki Oiartzabal Zinkunegi-Alkate Lehendakaria
Luis Berrondo Lanceta-Zinegotzia.
Jose Luis Albisua Lasa Zinegotzia.
Bittor Astigarraga Zugasti Zinegotzia.
Joseba Iñaki Labaka Beristain-Zinegotzia ez da etorri.
Josune Arruti Eizagirre Zinegotzia, ez da etorri.
Luis Arzallus Amenabar- Zinegotzia ez da etorri.

Idazkari lanetan, Maria Etxeberria Urretabizkaia Udaletxeko Bitarteko Idazkari Kontuhartzailea.

Alkateak hasera eman dio bilkura honi ondoko gai zerrendaren arabera:

LEHENENGO PUNTUA:

2010EKO EKAINAREN 3KO AKTAREN ONARPENA, BIDEZKOA BADA.

Alkateak 2.010eko ekainaren 3ko aktaren berri ematen du eta zinegotziek aho batez onartzen dute.

BIGARREN PUNTUA:

ERREZILGO SANTA MARINA AUZOAN UR DEPOSITUA JARRI ETA BANATZEKO KONTRATUA PUBLIZITATE GABEKO PROZEDURA NEGOZIATU BITARTEZ ESLEITZEKO BALDINTZA ADMINISTRATIBOEN ONARPENA ETA ESLEIPENARI HASIERA EMATEA, BIDEZKOA BADA.

Idazkariak Santa Marina auzoan ur depositua jarri eta banatzeko kontratua publizitate gabeko prozedura negoziatu bitartez esleitzeko baldintza administratiboen berri ematen du eta pleguek literalki zera diote:

“ ERREZILGO SANTA MARINA AUZOAN UR DEPOSITUA JARRI ETA BANATZEKO KONTRATUA PUBLIZITATE GABEKO PROZEDURA NEGOZIATU BITARTEZ ESLEITZEKO BALDINTZA ADMINISTRATIBO BEREZIEN AGIRIA

I.- KONTRATUAREN EDUKIA

1. KONTRATUAREN XEDEA

Baldintzen agiri honen arabera egiten den kontratuak Errezilgo Santa Marina auzoan ur depositua jarri eta banatzea izango du helburu, kontratu izaerako espedientean jasotako dokumentazio teknikoaren arabera.

2. GAUZATZEKO EPEA

Kontratu honen xede diren obrak guztiz gauzatzeko epea hiru hilabetekoa izango da, zuinketa egiaztatzeko akta sinatzen den egunaren biharamunetik hasita. Eta obrak gauzatzeko gutxienezko epea berriz, 6 astetakoa izango da.

Aipatutako epe hori betetzean, kontratista atzeratu egin dela ulertuko da; beraz, Administrazioak alde aurretik ez du inolako jakinarazpenik egin beharko.

3. KONTRATUAREN PREZIOA

Kontratuaren prezioa laurogeita hamabi mila hirurehun eta laurogeita hemeretzi euro eta hirurogeita hamalau zentimotakoa (109.955,68 €) izango da, %18ko BEZa barne. Lizitatuzaileek zenbateko hori hobetu ahal izango dute.

Kontratuaren prezioan, atal bakoitzaren prezioak adieraziko dira, behar bezala banakatuak, eta horiek balioko dute kontratua gauzaten den bitartean. Lizitatuzaileak ez baditu prezio horiek aurkezten, Administrazioaren aurrekontutik hartu dituela ulertuko da; eta horiek ere beheratutzat joko dira, proposamen ekonomikoaren edukian egindako beheratze-proporzio berean.

4. FINANTZAKETA

Kontratuaren prezioa ordaintzeko finantzaketa, aurtengo urteko aurrekontuan aurreikusia dago.

5. ORDAINTZEKO ERA

Egindako obrak aldika-aldika ordainduko dira, obraren teknikari zuzendariak luzatutako ziurtagirien bitartez.

6. PREZIOAK BERRIKUSTEA

Kontratu honetako prezioak ez dira berrikusiko.

7. BERMEAK

Kontratuaren behin-behineko esleipendunak, behin betiko bermea ipini beharko du derrigorrez –esleipen prezioaren % 5, BEZ sartu gabe– bere gain hartutako obligazioak beteko dituela ziurtatzearen.

Berme hori hamabost laneguneko epean eratu beharko da, behin-behineko esleipena kontratugilearen profilean argitaratzen den egunaren biharamunetik hasita. Behin betiko berme hori, Sektore Publikoko Kontratuen Legeko 84. artikuluan aurreikusitako edozein eratan ezar daiteke.

Bermea itzultzeko, bai berme osoa eta bai zati bat, halakorik izanez gero, Sektore Publikoko Kontratuen Legeko 90. artikuluan ezarritakoari jarraituko zaio. Itzulketa, dena den, bermearen epea bukatu ondoren eta esleipendunak kontratuan onartutako betebeharrak guztiak betetzean egingo da.

8. KONTRATUA GAUZATZEA

Zuinketa egiaztzeko akta sinatzean ekingo zaio obren kontratua gauzatzeari. Eta akta hori, hilabeteko epean sinatu beharko da, kontratua zertzen denetik aurrera.

Kontratua kontratistaren arrisku eta zorian gauzatuko da; eta honek ez du izango obretan eragindako galera, matxura edo kalteen ondoriozko kalte-ordainak jasotzeko eskubiderik, Sektore Publikoko Kontratuen Legeak 214. artikuluan aipatutako ezinbesteko kasuetan izan ezik.

Edonola ere, obrak egiterakoan zorrotasun osoz beteko dira honako agiri honetan ezarritako baldintzak, agiri honekin zerikusia duten zehaztapen teknikoak, Sektore Publikoko Kontratuen Legean xedatutako betekizunak eta 2001eko urriaren 12ko 1.098/01 Errege Dekretuaren bitartez onartutako Herri Administrazioen Kontratu Legearen Erregelamenduan ezarritakoak. Kontratua, batez ere, administrazioaren zuzendaritza, ikuskapen eta kontrolpean gauzatuko da, ahalmen horiek administrazioak erabiliko baititu, bai idatziz eta bai hitzez.

Kontratastari edo kontratastaren mendeko pertsoneri lepora dakizkiekeen egintzen edo ez-egiteen ondorioz, kontratuaren martxa ona oztopatzen bada, Administrazioak, obra modu egokian egiteko edo egokitasun hori berreskuratzeko beharrezkotzat jotzen dituen neurriak hartzea exiji dezake.

9. KONTRATISTAREN LAN ARLOKO BETEKIZUNAK

Kontratastak, kontratu honen xede diren obretako langileei dagokienez, lan arloan, Gizarte Segurantzaren eta laneko segurtasun eta higiene gaietan indarrean dauden legezko xedapenen guztiak bete behar ditu ezinbestez. Beraz, aipatutako xedapenak ez betetzearen erantzukizunetik libre utziko du Administrazioa.

10. KONTRATISTAREN ERANTZUKIZUNA, KONTRATUA GAUZATZERAKOAN HIRUGARRENEI ERAGINDAKO KALTEETAN.

Obrek dirauten bitartean, kontratasta izango da pertsonengan, zein jabetza edo zerbitzu publiko edo pribatu orotan, eragin daitezkeen kalte eta galera guztien erantzule, kalte horien jatorria edonolako delarik ere: bere kargura dauden pertsonen egintzak, ez-egiteak edo zabarkeriak, edota obren antolakuntza, babes neurri edo seinale-sistema eskasa.

11. KONTRATUA ALDATZEA

Herriaren intereseko arrazoiek hala agintzen dutenean, Administrazioak kontratua alda dezake ezusteko gorabehereri aurre egiteko. Halakorik geratzen bada, kontratastak ez du izango inolako kalte-ordaina jasotzeko eskubiderik, Sektore Publikoko Kontratuen Legeak 220.e) artikuluan ezarritakoa baldintzatu gabe.

Kontratuan egindako aldaketek kontratu horretan aurreikusi gabeko obra-unitateak sartu beharra eragiten badu, aldaketa horien prezioak Kontratazio Organoak erabakiko ditu. Eta, kontratastak onartu ezean, Kontratazio Organoak beste enpresari batekin kontrata ditzake, aurrez erabakitako prezio berean; bestela, administrazioak berak ere egin ditzake zuzenean.

12. OBRAK HARTZEA ETA BERMEAREN EPEA

Obraren harrera formala eta positiboa obrak bukatzen direnetik hasi eta gehienez ere hilabeteko epean egingo da; eta egintza horren bidezko akta egingo da.

Era berean, obrek urtebeteko bermea izango dute, harrera formala egiten den egunetik hasita, Sektore Publikoko Kontratuen Legean eta Herri Administrazioen Kontratu Legearen Erregelamendu Orokorrean aurreikusitako ondorioetarako.

Hala eta guztiz ere, obra bermearen epea amaitu eta gero hondatzen bada, kontratistak kontratuko baldintzak ez betetzearen ondorioz eraikuntzak ezkutuko akatsak dituelako, hondamen horren kalteak eta galerak kontratistak bere kontura konpondu beharko ditu, obra hartzen den egunetik hasi eta hamabost urteko epean. Epe horretan inolako kalte edo galerarik azaltzen ez bada, kontratistaren erantzukizuna erabat amaitutzat joko da.

13. KONTRATISTARI EZAR DAKIZKIOKEEN ZIGORRAK

A) KONTRATUA GAUZATZEKO EPEAK EZ BETETZEAGATIK

Kontratistak, beroni lepora dakizkiokeen arrazoiengatik, kontratua gauzatzeko epea ez badu betetzen, hau da, epe osoan edo zatikako epeetan, halakorik izanez gero, atzeratzen bada, Administrazioak bi aukera izango ditu: kontratua indargabetzea, kontratistak ezarritako bermea galduz; edota zigor ekonomikoa ezartzea, egunean 0,20ko proportzioan, kontratuaren prezioa 1.000 euro bakoitzeko.

Atzerapenaren zigorrak kontratuaren prezioa 100eko 5aren anizkoitzera iristen diren bakoitzean, Kontratazio Organoak ahalmen osoa izango du kontratua indargabetzeko edota kontratua gauzatzen jarraitzea erabakitzeko, zigor berriak ezarrita.

Atzerapenaren ondorioz, Udalak Gipuzkoako Foru Aldundiak LandaGipuzkoa 32 programaren barnean Errezilgo Udaleri “ Errezilgo Santa Marina auzoan ur depositua jarri eta banatzeko proiektua” rako emandako dirulaguntza galduko balu, kontratistak dirulaguntza horren zenbatekoa ordainduko luke.

B) PRESTAZIOEN EXEKUZIO PARTZIALA EZ BETETZEAGATIK

Kontratistak, beroni lepora dakizkiokeen arrazoiengatik, ez badu gauzatu kontratuan ezarritako zatikako prestazioak, Administrazioak bi aukera izango ditu: kontratua indargabetzea edota bidezko zigor ekonomikoa ezartzea, kontratuaren prezio osoaren 100eko 10ekoa.

Prestazioa ez bada behar den moduan bete, Administrazioak kontratuaren aurrekontuaren % 10eko zigor ekonomikoa ezarri ahal izango dio.

14. KONTRATUA INDARGABETZEKO ARRAZOTIAK

Kontratua indargabetzeko arrazoiak, Sektore Publikoko Kontratuen Legeak 206. eta 220. artikuluetan halakotzat finkatutakoak izango dira.

15. ADMINISTRAZIOAREN ESKUBIDEAK

Administrazioari dagokio kontratua interpretatzeko eskubidea, hala nola kontratua gauzatzekoan gerta litezkeen zalantzak erabakitzea, herriaren onuragatik kontratua aldatzea, kontratua indargabetzea eta indargabetze horren ondorioak zehaztea eskubidea, betiere Sektore Publikoko Kontratuen Legean eta Herri Administrazioen Kontratu Legearen Erregelamenduan ezarritako mugak, betekizunak eta ondorioak errespetatuz.

II.- KONTRATAZIOAREN PROZEDURA

16. KONTRATUA ESLEITZEKO PROZEDURA ETA BALORAZIO IRIZPIDEAK

Kontratu hau prozedura negoziatuaz esleituko da, Sektore Publikoko Kontratuen Legeko 153.artikuloetik 162.artikuloetan aurreikusita dagoelako eta lege berbereko 155.d) artikuluan aipaturiko kasua delako.

Kontratua esleitzeko oinarritzat hartuko diren eskaintzak baloratzeko irizpideak, garrantzi handienekotik txikienera zerrendatu dira. Honakoak dira, eman zaien pisuaren arabera:

1.- ESKAINTZA EKONOMIKOA: 40 puntu.

Honela baloratuko dira aurkeztuko diren eskaintzak: prezio baxuenari (balio merkegia edo ez-proporzionala bezela hartzen ez badira) gehiengo puntuazioa emango zaio. Gainerakoei ondorengo formularen arabera emango zaie puntuazioa:

40 x eskaintza baxuenaren zenbatekoa
baloratu behar den eskaintzaren zenbatekoa

2.- EXEKUZIO EPEA: 30 puntu.

Kontuan izanik, Udalak obra hau egiteko jarri duen gutxienezko exekuzio epea 6 astetako dela, honela baloratuko dira aurkeztuko diren eskaintzak: 3 hilabeteko epea astebetez gutxitzeagatik, asteko 5 puntu, gehienez ere 30 puntu arte.

3.- EGINDAKO LANAK: 20 puntu.

Honela baloratuko dira aurkeztuko diren eskaintzak: plegu honen xede den antzeko obra bakoitzeko 5 puntu, gehienez ere 20 puntu arte.

4.- PROIEKTUARI HOBEKUNTZAK SARTZEA: 10 puntu.

Honela baloratuko dira aurkeztuko diren hobekuntzak: proiektuari egiten zaion hobekuntza bakoitzeko 5 puntu, gehienez ere 10 puntu arte.

Eskaintzak neurritz kanpokoak edota ez-ohikoak diren ala ez antzemateko, Herri Administrazioen Kontratu Legearen Erregelamendu Orokorreko 85. artikuluan eta hurrengoetan aurreikusita dagoenarekin bat etorritik finkatutako parametro objektiboak erabiliko dira, betiere aurkeztutako eskaintza baliozkoen multzo osoa erreferentziazat hartuta.

17. KONTRATATZEKO GAITASUNA ETA KAUDIMENA

Kontratatzeko prozedura honetan, ahalmen juridikoa eta erabakiak hartzeko gaitasun osoa duten pertsona fisikoek nahiz juridikoek parte hartu ahal izango dute, baldin eta kaudimen ekonomikoa, finantzarioa, teknikoa edo profesionala egiaztatzen badute eta, betiere, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 49. artikuluan adierazita dauden kontratatzekeo debeku kasuetan sartzen ez badira. Kaudimena, 18. baldintzako e) letran ezarritako bitartekoren baten bidez egiaztatu eta ebaluatuko da.

Era berean, norberak edota egintza honetarako ahalorde nahikoaz baimendutako pertsonaren bidez parte har daiteke. Pertsona juridiko baten ordezkapenean entitate horretako kideren batek badihardu, ordezkatzeko gaitasun hori agirien bidez egiaztatu beharko du. Bai kasu batean bai bestean, gorago aipatu diren ezgaitasun-arrazoiek eragin bera izango dute ordezkariarengan ere.

Enpresariak, halaber, kontratu honen xede den jarduera burutzeko eska dakiekeen enpresari edo profesional gaitasuna izan beharko dute. kasuak kasu.

18. PROPOSAMENAK AURKEZTEA

Kontratazio honen espedientea, eta honekin lotua dagoen dokumentazio tekniko guztia, ikusgai egongo dira Errezilgo Udaletxean, lanegun guztietan, 9:00etatik 14:00etara proposamenak aurkezteko epearen barnean.

Proposamenak arestian adierazitako leku eta ordutegian aurkeztu ahal izango dira.

Eskatzaileek baldintzen agiri honi buruz, edo dokumentazio osagarriari buruz, eska ditzaketen argibide gehigarriak, proposamenak aurkezteko epearen azken eguna baino sei egun lehenago emango zaizkie, baldin eta eskaera hori proposamenak aurkezteko epemuga baino gutxienez zortzi egun lehenago egin badute.

Sektore Publikoko Kontratuen Legeak 142.3 artikuluan ezarritakoari jarraituz, baldintzen agiriari buruz, edo dokumentazio osagarriari buruz eskatutako informazio gehigarria ezin bada eman aipatutako epean, edo proposamenak obraren lekua ikusi ondoren bakarrik egin badaitezke, edo agiriari erantsitako dokumentazioa lekuan bertan azertu beharrekoa bada, eskaintzak jasotzeko epea luzatu egingo da, beharrezkotzat jotzen den denboraz, ukitutako hautagaiek eskaintzak egiteko behar duten informazio osoa jasotzeko aukera izan dezaten.

Epea amaitu eta gero aurkezten diren proposamenak ez dira onartuko, ezta Postetxean epearen barruan utzi zirela egiaztatzen bada ere, baldin eta proposamena postaz bidali zen egun berean bidalketa horren ziurtagiria telex edo fax bidez edo telegramaz edo posta elektronikoz Kontratazio Organoari igorri ez bazaio behintzat. Proposamena posta elektronikoz bidaltzen bada, Herri Administrazioen Kontratu Legearen Erregelamendu Orokorreko 80.4. artikuluan aurreikusita dagoena bete beharko du baliozkotzat jo ahal izateko.

Lizitatzailerak bi gutunazal itxi aurkeztu behar dituzte (A eta B), eta bakoitzaren gainean, honakoa ipiniko dute: “ERREZILGO SANTA MARINA AUZOAN UR DEPOSITUA JARRI ETA BANATZEKO KONTRATAZIOAN PUBLIZITATE GABEKO PROZEDURA NEGOZIATUAREN BITARTEZ PARTE HARTZEKO PROPOSAMENA”.

Gutunazal bakoitzean proposamena egiten duen enpresaren izena eta proposamen hori aurkezten duen pertsonaren izen-abizenak ipiniko dira, bere izenean edo besteren ordezkapenean diharduen adieraziz. Bi gutunazalak ere sinatu egin beharko dira.

“A” gutunazalean “KONTRATATZEKO GAITASUNA ETA KAUDIMENA” ipiniko da eta honako agiriak jasoko ditu:

a) Lizitatzaileraren edo ordezkariaren Nortasun Agiriaren kopia. Horrez gain, beste pertsona edo entitate baten ordezkapenean jardunez gero, notario-ahalordearen kopia aurkeztuko da.

b) Lizitatzailerak pertsona juridikoa denean, entitatearen eraketa edo aldaketaren eskritura, Merkataritza Erregistroan behar bezala inskribatua, eta identifikazio fiskalaren zenbakia,

aplikagarria den merkataritza legeriaren arabera inskripzioa beharrezkoa den kasuetan. Inskripzio hori ez bada derrigorrezkoa, erabakiak hartzeko gaitasuna egiaztatzeko, entitatearen eraketaren eskritura eta estatutuak edo eraketa-egintzaren agiria aurkeztu beharko dira. Dokumentu horiek, jarduera erregulatzen duten arauak jasoko dituzte eta haiek, beharrezkoa denean, kasuan kasuko Erregistro ofizialean inskribatuak egongo dira. Espainiarrak ez baina Europar Batasuneko estatu kide bateko enpresariak badira, dagokien erregistroan inskribatuta daudela egiaztatu beharko dute, kasuan kasuko estatuko legeriak agintzen duenaren arabera. Bestela, zinpeko aitortpena aurkeztuko dute, edo Europar Batasuneko xedapenen arabera egindako ziurtagiria.

c) Berariazko aitortpen erantzulea, Sektore Publikoko Kontratuen Legeak 49. artikuluan xedatutakoaren arabera, kontratua egiteko inolako debekurik ez duela adieraziz. Lizitatuzaileak aitortpen horretan berariaz adieraziko du, zerga betekizunetan eta Gizarte Segurantzarekin egin beharreko ordainketetan egunean dagoela, baldin eta bi zirkunstantzia horiek egiaztatzen dituzten ziurtagiriak aurkezten ez baditu behintzat.

d) Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan, kontratuaren xedeari dagokion epigrafean izena emanda egotea egiaztatu beharko da. Horretarako, altaren agiria aurkeztuko da, jarduneko ekitaldian egingo bada; bestela berriz, aipatutako zergan egindako azken ordainketaren agiria. Kasu batean zein bestean, aipatutako zergaren matrikulan baja eman ez izanaren aitortpen erantzulea aurkeztu beharko da.

Lizitatuzailearen kaudimen ekonomiko, finantzario, tekniko edo profesionalaren ziurtagiriak. Horretarako, Sektore Publikoko Kontratuen Legeak 64-1.a) eta 65.a) artikuluetan finkatutako frogabideak erabiliko dira.

f) Enpresari bat baino gehiagok, aldi baterako enpresa-elkartea osatuz parte hartzen badute lizitazioan, elkartea osatzen duen enpresa bakoitzak bere gaitasuna eta kaudimena egiaztatu beharko du, aurreko puntuetan ezarritako eran. Gainera, esleipendun suertatuz gero aldi baterako enpresa-elkartea formalki eratuko dutenaren konpromisoa aurkeztu beharko dute. Proposamenean, halaber, enpresa-elkarte horretako kide bakoitzak gauzatuko duen zatia adieraziko dute, administrazioak kide guztien kaudimen baldintzak zehaztu eta egiaztatzearen.

g) Atzerriko enpresek berariazko aitortpen bat egingo dute, Espainiako edozein motako epaitegi eta auzitegien jurisdikzioaren mende egongo direla esanez, kontratutik zuzenean edo zeharka ondoriozta daitekeen gorabehera orotan; eta, lizitatuzaileari legokiokoen atzerriko jurisdikzio-eskumenari uko egiten diola, halakorik izanez gero.

a), b) eta c) letretan adierazitako betekizunak egiaztatzeko, Euskal Autonomia Erkidegoko Eskaintzaileen eta Sailkatutako Enpresen Erregistro Ofizialeko ziurtagiria edo Estatuko Lizitatuzaileen eta Sailkatutako Enpresen Erregistro Ofizialeko ziurtagiria

aurkez daiteke; edo bestela, Europar Batasuneko sailkapen-ziurtagiri batekin, Sektore Publikoko Kontratuen Legeko 73. artikulua xedatutakoaren arabera. Kasu honetan, ziurtagiriarekin batera, hor adierazitako egoerak ez direla aldatu ziurtatzen duen aitortzen erantzulea ere aurkeztu beharko du lizitatuak.

“B” gutunazalean “PROPOSAMEN EKONOMIKOA ETA KONTRATUA ESLEITZEKO IRIZPIDEAK” ipiniko da, eta honako agiriak jasoko ditu:

a) Proposamen ekonomikoa, honako eredu honi jarraituz:

..... jaunak, helbidea(e)an, PK dudanak, NA.:
....., telefonoa, e-mail dudanak, ahalmen juridiko eta erabakiak hartzeko ahalmen osoarekin, neure izenean (edo helbidea(e)an, PK duen, NA edo IFZ (pertsone fisikoa edo juridikoa izatearen arabera), telefonoa, e-mail duen ren ordezkapenean), Errezilgo Udalak publizitate gabeko prozedura negoziatuaren bitartez kontratatzeko xedez egin duen deialdiaren berri izanik, honakoa aitortzen dut:

1) Kontratua euroko (..... €) prezioan gehi BEZ (% 18) etako epean egiteko konpromisoa hartzen dudala. Kontzeptu guztiak prezio horren barruan sartuta daude, baita zergak, gastuak, arlo fiskaleko tasak eta gainerako guztiak, eta kontratistaren irabazi industrialak ere.

2) Proiektua eta bere edukia ezagutzen ditudala, kontratu hau arautuko duten baldintza administratibo berezien agiriak eta gainerako dokumentazio guztia bezalaxe, eta guztiak oso-osorik ontzat eman eta nire gain hartzen ditudala.

3) Ordezkatzen dudana enpresak betetzen dituela indarrean dagoen araudiak enpresa irekitzeko, instalatzeko eta martxan jartzeko finkatutako betekizun eta obligazio guztiak.

.Errezilen, 2010ekoren(e)an.

Sinadura

b) Eskaintzak baloratzeko irizpideak betetzen direla ziurtatzen duten dokumentuak, baldintzen agiri honetako 16. klausulan zehaztu direnak.

Jatorrizko agiriak edo kopiak aurkez daiteke; baina kopiak aurkezten badira, Administrazioak edo notarioak konpultsatua edo erkatua izan beharko dute.

19. DOKUMENTUAK KALIFIKATZEA, ENPRESAK HAUTATZEA ETA PROPOSAMENAK IREKITZEA.

Kontratazio Mahaiak, proposamenak aurkezteko epea bete ondoren, garaiz eta behar den eran jasotako dokumentazioa (“A” gutunazala) kalifikatuko du, Herri Administrazioen Kontratu Legearen Erregelamendu Orokorreko 81. artikuluan eta hurrengoetan aurreikusita dagoen eran.

Horretarako, lizitatuzaileen gaitasunari eta kaudimen ekonomikoari buruzko azalpen edo agiri gehigarriak eskatu ahal izango dira; eta, Erregelamenduko 22. artikuluan ezarritakoari jarraituz, lizitatuzaileek bost egun naturaleko epea izango dute eskatutakoa aurkezteko. Kontratazio Mahaiak, azalpen edo dokumentazio gehigarrien eskaera hitzez jakinaraziko die interesdunei; eta, aldi berean, Kontratazio Organoaren iragarkien taulan eta kontratatuzailearen profilean emango du jakitera. Aurkeztutako dokumentazioan izan daitezkeen oker zuzengarriak ere modu berean jakinaraziko ditu Mahaiak; eta horrelakorik gertatuz gero, lizitatuzaileek hiru laneguneko epea izango dute antzemandako okerrak zuzentzeko edo konpontzeko.

Aurkeztutako dokumentazioa kalifikatu eta, halakorik bada, antzemandako akatsak edo ez-egiteak zuzendu ostean, Kontratazio Mahaiak honako agiri honetako 18. klausulan ezarritako hautaketa-irizpideak betetzen dituzten enpresak izendatuko ditu. Hain zuzen ere, lizitazioan onartutako eta baztertutako enpresak berariaz izendatuko ditu, azken hauek baztertzeko arrazoiak adieraziz.

Aurkeztutako proposamenak (“B” gutunazala) jendaurreko ekitaldian irekiko dira, proposamenak aurkezteko epea bukatzen den egunaren ondorengo egunean.

Ondoren, proposamenak baloratu eta hoberenetik okerrenera sailkatuko dira, 16. klausulan ezarritako irizpideei jarraituz. Gero, Kontratazio Mahaiak, bidezko txosten teknikoak jaso ondoren, esleipena egin behar duen Kontratazio Organoari igorriko dio kontratua esleitzeko proposamena.

20. KONTRATUA ESLEITZEA, FORMALIZATZEA ETA GASTUAK

Kontratazio Organoak, kontratuaren behin-behineko esleipena egingo dio proposamen ekonomiko onuragarriena aurkeztu duen lizitatuzaileari.

Behin-behineko esleipena gehienez ere hilabeteko epean egingo da, proposamenak irekitzen diren egunaren biharamunetik aurrera. Baina, Sektore Publikoko Kontratuen Legeak 145.3. artikuluan aurreikusten duenarekin bat etorriz, epe hori hamabost lanegunetz luzatuko da aipatutako legeko 136.3. artikulua zehaztutako tramiteak

jarraitu behar direnean, proposamen bat edo beste neurritz kanpokoak edo ez-ohikoak izan daitezkeelako.

Eskaintza bat neurritz kanpokotzat edota ez-ohikotzat jo aurretik, eskaintza hori aurkeztu duen lizitatzailari entzungo zaio (edo lizitatzailari, bat baino gehiago badira), eta kasuan kasuko zerbitzuko teknikariaren aholkua jaso.

Horrelakorik gertatzen bada, lizitatzailak emandako arrazoiak entzun eta eskatutako txostenak aztertu ondoren, Kontratazio Organoak proposamen ekonomikoki onuragarriena aurkeztu duen lizitatzailari egingo dio behin-behineko esleipena, betiere lana Administrazioak eskatu bezala egingo duela irizten badio. Bestela, anormaltzat edo neurritz kanpokotzat jo ez den proposamenari egingo zaio behin-behineko esleipena.

Kontratuaren behin-behineko esleipena kontratugilearen profilean argitaratzen den egunaren biharamunetik aurrera, behin-behineko esleipendunak hamabost lanegun izango ditu honako eginkizunak betetzeko:

- a) Zerga alorreko eta Gizarte Segurantzako betekizunetan egunean dagoela egiaztatzen duten ziurtagiriak aurkezteko, baldin eta proposamenarekin batera aurkeztu ez baditu behintzat. Era berean, kontratuari ekiteko garairako hitzartutako bitartekoak benetan eskura dituela dioen ziurtagiria ere epe horretan aurkeztu beharko du, halakorik behar denean.
- b) Behin betiko bermea eta, hala badagokio, berme osagarria jartzeko.

Behin-behineko esleipena, arestian aipatutako epea betetzen den egunaren ondorengo hamabost lanegunen barruan egingo da behin betiko, baldin eta esleipendunak adierazitako betebeharrak guztiak bete baditu. Bestela, behin betiko esleipena ez zaio behin-behineko esleipendunari egingo.

Sektore Publikoko Kontratuaren Legeak 139.2 artikuluan aurreikusitakoari jarraituz, esleipendunak kontratua egiteari uko egiten badio, edo prozedura honetan atzera egiten badu, lizitazio honek lizitatzailari eragin dizkien gastuen konpentsazioa Administrazioak erabakiko du, interesdunei entzun eta gastuak justifikatu ondoren.

Kontratua, Kontratazio Organoak egindako behin betiko esleipenaren bitartez zertuko da. Organo horrek esleipendunari jakinaraziko dio erabakia eta, honek, esleipenaren berri eman zaion egunetik hasi eta hamar laneguneko epean, honako eginkizunak bete beharko ditu:

- a) Publizitate ofizialaren gastuan ordaindu, halakorik balego, Aldizkari bakar batean eta behin.
- b) Administrazio honetara etorri, proiektuaren zuinketa egiaztatzeke eta bidezko akta sinatzeko.

- c) Azkenik, Administrazio honetara etorri, kontratua agiri administratiboan formalizatzeko.

Kontratistari egoztekoak diren arrazoiengatik kontratua ez bada formalizatu, Administrazioak kontratua indargabetutzat jotzea erabaki dezake, aldez aurretik interesdunari entzunda, kontratistari honek eragindako kalte eta galeren kalte-ordaina eskatuz.

III.- IZAERA, ERREGIMEN JURIDIKOA ETA JURISDIKZIO ESKUDUNA

21. IZAERA ETA ERREGIMEN JURIDIKOA

Baldintzen agiri honen arabera egiten den kontratuak izaera administratiboa izango du; eta, agiri honetan aurreikusi gabeko orotan, honako araudi hauetan ezarritakora joko da: Sektore Publikoko Kontratuen 30/2007 Legea, urriaren 30ekoa; Herri Administrazioen Kontratu Legearen Erregelamendu Orokorra, 2001eko urriaren 12ko 1.098/01 Errege Dekretuaren bitartez onartua, eta Herri Administrazioen kontratazioan aplika daitezkeen gainerako arauak.

Baldintza Administratibo Berezien Agiri honetan eta espedienteari lotutako gainerako dokumentazio teknikoaren artean desadostasunik antzemango balitz, honako Agiri honetan xedatutakoa lehenetsiko litzateke.

22. IZAERA PERTSONALEKO DATUAK BABESTEIA

Kontratazio hau egiteak izaera pertsonaleko datuak erabili beharra badakar, kontratistak Sektore Publikoko Kontratuen Legeko Hogeita Hamaikagarren Xedapen Gehigarria aplikatuztik ondorioztatzen diren obligazioak bete behako ditu, Izaera Pertsonaleko Datuak Babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoak ezartzen duenari jarraituz, eta lege hau garatzeko araudiarekin bat etorritik.

23. JURISDIKZIO ESKUDUNA

Kontratu honetatik ondoriozta litezkeen auziak administrazioarekiko auzietarako jurisdikzioaren mende jarriko dira. Hala eta guztiz ere, indarrean dagoen legerian ezarritakoaren arabera, auziak arbitrajearen menpe jartzea erabaki dezakete bi aldeek.

Bozketa egin eta Batzordearen proposamena aztertu ondoren, onartu dute ondoko ondorioekin:

1. Aldeko botoak Iñaki Oiartzabal Zinkunegi, Bittor Astigarraga Zugasti, Luis Berrondo Lanceta eta Koldo Albisua Lasa.
2. Aurkako botoak: ez dago.
3. Abstentzioak: ez dago.

Beraz, aipaturiko pleguak onartuta geratzen dira.

**HIRUGARREN PUNTUA:
2009 EKITALDIAN KULTUR ETA KIROL JARDUERAK EGITEKO
DIRULAGUNTZEN KITAPENAREN ONARPENA.**

Ikusirik 2008ko abenduaren 4an egindako Udalbatzan 2009 ekitaldian ondoren aipatzen diren kultura eta kirola iharduerak emateko dirulaguntza onartu zela.

- 1.- Gazte taldea (idi demak) : 1.000 €
- 2.- Atala (kultur ekintzak): 1.000 €
- 3.- Atala (Zokomian): 950 €
- 4.- Erniarraitz (betsolaritza): 600 €
- 5.- Toki Alai (ikastaroak): 1.000 €

Ikusirik 2008ko abenduaren 31ko datarekin, aipaturiko dirulaguntzen % 60-a ordaindu zitzaizela.

Ikusirik subentzioa ematen deneko baldintzetako bat, %40-a ordaintzeko egindako gastua justifikatzearena dela.

Ikusirik justifikazio hau eskatzaile guztiek egin dutela.

Udalbatzak, aho batez, eta Batzordearen proposamena kontuan izan ondoren, gainontzeko %40-a ordaintzea erabaki du, hau da:

- 1.- Gazte taldea (idi demak) : 400 €
- 2.- Atala (kultur ekintzak): 400 €

- 3.- Atala (Zokomian): 380 €
- 4.- Erniarraitz (betsolaritza): 240 €
- 5.- Toki Alai (ikastaroak): 400 €

**LAUGARREN PUNTUA:
2010 EKITALDIAN KULTUR ETA KIROL JARDUERAK EGITEKO
DIRULAGUNTZEN ONARPENA.**

Ikusirik 2010 ekitaldian kultur eta kirol iharduerak egiteko dirulaguntzak eskatzeko epea maiatzaren 31an amaitzen zela.

Ikusirik epe honetan zehar, ondorengo 4 eskatzaile aurkeztu direla beraien proiektuak ondorengoak direlarik:

- 1.- Gazte taldea (idi demak) : 11.500 €
- 2.- Atala (kultur ekintzak): 3.250,00 €
- 3.- Erniarraitz (betsolaritza): 645,13 €
- 4.- Toki Alai (ikastaroak): 3.830,00 €

Udalbatzak, aho batez, eta Batzordearen proposamena kontuan izan ondoren, ondorengo dirulaguntzak ematea eta proiektuaren %60-a ordaintzea erabaki du:

- 1.- Gazte taldea (idi demak) : 1.000 €
- 2.- Atala (kultur ekintzak): 1.000 €
- 3.- Erniarraitz (betsolaritza): 645,13 €
- 4.- Toki Alai (ikastaroak): 1.000 €

Beraz, 2010 urterako kultur eta kirol iharduerak onartuta geratzen dira.

**BOSTGARREN PUNTUA:
BAI UDALBILTZARI, BAI EUSKAL HERRIAREN INGURUAN
AURKEZTURIKO MOZIOAREN ONARPENA.**

Ikusirik Koldo Albisua zinegotziak Bai Udalbiltzari, Bai Euskal Herriaren inguruan aurkezturiko mozioa, Udalbatzak, aho batez, zera erabaki du:

1.- Aldarrikatzea 1999ko irailean euskalduna jauregian egindako batzar sortzailean onartu ziren bost helburuen alde lan egitea beharrezkoa eta zilegi dela eta ezin dela delitutzat jo. Helburu eta lan-ildo horietan aurrera egiteagatik hautetsi eta alkateak kriminalizatzea demokraziaren aurkako ekimena da, are gehiago kontuan hartuta epaituak sufragio unibertsalez aukeratutako herri-ordezkariek direla.

2.- Konpromisoa hartzea, edozein arlo instituzionaletan, demokratikoki aukeratutako ordezkariek Euskal Herriko lurralde eta eremu administratibo guztietako instituzioak sortu, bultzatu, garatu eta finantzatzeko duten eskubidea errespetatzeko.

3.- Udalbiltza eta bertako hautetsi eta langile ohien aurka Madrileko Auzitegi Nazionalean eramate ari den auzibidea irmoki salatzea eta Estatuko Gobernuari eskatzea Estatuko fiskal nagusiak gaur egun mantentzen duen akusazio publikoa erretira dezala.

4.- Epaiketa gertatu bitartean, uztailaren 15ean Udaletxe aurrean 20:00etan kontzentratzera deitzen ditugu herritarrak, era isilean elkartasuna adierazteko.

Beraz, Bai Udalbiltzari, Bai euskal Herriaren inguruko mozioa onartuta geratzen da.

SEIGARREN PUNTUA: ORDAINAGIRIEN ONARPENA.

Ez dago ordainagiririk.

ZAZPIGARREN PUNTUA: ALKATETZA BERRIAK ETA EBAZPENAK.

1.- Hiritar Lurzoruko 4/1 H.I.B. unitatean kokaturiko terrenoaren inguruan emandako segregazio baimenaren inguruko segregazio, zesio eta bidezorren onarpenak.

2.- Mediku etxeko otsaila eta martxoko argindarraren kontsumoaren kuotaren itzulera.

3.- Zabale baserrian segregazio baimena ematea.

4.- Alkatearen delegazioa Alkateordearengan.

- 5.- Odria Goiko baserriko teilatua konpontzeko baimena ematea.
- 6.- Hezkuntza-administrazioaren menpeko ikastetxeak dituzten udal jabetzako eraikinetan obrak egiteko dirulaguntza eskaera egitea.
- 7.- Iburguren Goikoa baserrian pertsona bat erroldatzea.
- 8.- Iburguren Goikoa baserrian pertsona bat erroldatzea.
- 9.- 2010eko ekainaren 20an eskolako patioa erabiltzeko baimena ematea.
- 10.- Senda belarren ikastaroa emateko Borondegiko areto txikia erabiltzeko baimena ematea.
- 11.- Errezilgo autobus geralekuetako zutoin eta markesinetan sistema identifikatzeko plakak jartzeko baimena ematea.
- 12.- Zuazketa baserrian terraza irekia egiteko baimena ematea zenbait baldintzapean.
- 13.- Errezilgo haurrek Azpeitian burutzen duten igerilekuko ikastaroetara joateko autobus gastuak ordaintzeko dirulaguntza ematea.
- 14.- 2010eko uztailaren 15ean Errezilgo eskolako dutexak, goiko dantzalekua eta herriko frontoia erabiltzeko baimena ematea.
- 15.- Odola ateratzeko kanpainarako Borondegiko goiko lokala erabiltzeko baimena eta dirulaguntza ematea.
- 16.- 2010eko ekaineko fakturen onarpena.
- 17.- Añoi baserrian esnetegia eta esnekien produkzio iharduera legeztatzeako obra eta iharduera baimenak ematea.
- 18.- Aitzarte baserrian artegia legeztatzeako obra eta iharduera baimenak ematea.
- 19.- 7191-GJL matrikuladun ibilgailua traktore bezela katalogatzea eta dagokion kuota itzultzea.
- 20.- Sara etxean pertsona bat erroldatzea.

ZORTZIGARREN PUNTUA:
GALDERAK ETA ERREGUAK.

Ez da ezer aipatzen.

Beste gairik ez dagoenez, gaueko bederatzia eta berrogeita bost minutu direnean, Alkateak amaitutzat eman du udalbatzar hau eta nik, Idazkari gisa, Akta jaso dut.